

Sinaduren gerra

Joxean Agirre

Eztabaida zaharra da. Ez zaizkit inoiz gustatu edozein kausa politikoren alde edo kontra manifestuak sinatzeko prest dauden intelektualak; ez dakit zergatik duten filosofo, idazle eta artistek auzi politiko baten aurrean zorrotasun gehiago, esate baterako, sendagileek, suhiltzaileek edo harakinek baino. Urteak eman ditut idazle eta artistei elkarrizketa luzeak egiten, eta, bakoitza berean miresgarriak, apartak eta are jenialak izan badaitezke ere, beren esparrutik ateratzen direnean galduta ikusi ditut, beste gremio batzuetakoak bezain galduak bai behintzat.

Kataluniako *procés*-aren aurrean lehenik eta erreferendumaren aurrean ondoren, badirudi intelektual guztiak mobilizatu direla. Aurretik ere zerrendak egon ziren alde eta kontra. Hilaren 17koa izan da mediatikoen: “Erreferendum-tranparen” aurkako

manifestu bat aurkeztu zuten Madrilen ezkerreko 960 intelektualak. Tartean izen handiak: Marse, Isabel Coixet, Cristina Almeida, Cercas, Montero, Martinez de Pison eta asko miresten ditudan idazle batzuk ere bai tartean, Millas eta Marias, esate baterako. Manifestuaren sinatzaileok *Parlament*-aren lege tramitazioak juzgatzeko orduan zeinen eskakizun demokratiko zorrotzak ziztuzten ikusita, neure buruari galdetu nion ea non egon ote ziren 2006an *Parlament* horrek Estatutuaren erreforma tramitatu, Madrilgo Kongresutik pasatu, erreferendumean onartu eta lau urte geroago Konstituzionalak erabat inausita utzi zuenean.

Manifestua kaleratu eta hamar egunera kontseilaritzetako goi-karguak atxilotzeko, Generalitateko diru-kontuetan esku hartu eta adierazpen eskubideak murritzeko Guardia Zibila mobilizatu zenean beste ma-

nifestu bat aterako zutela pentsa zezakeen norbaitek, baina ez zen halakorik gertatu; sinaduren zerrenda gehituz joan zen aitzitik, eta bi milatik gora izatera iritsi. Onartzen dut kausa bat arriskugarria denean, jarpen baten mehatxua dagoenean edo iritzi publikoaren kontrakoa denean behinik behin, sinadura batek izan dezakeela meriturik. Meritua tristea da, ordea, edozertarako prest dagoen Estatua alde duzunean.

Kataluniarrek kulturako ordezkarien beste zerrenda batekin erantzun dute eta hauek ere bi mila izenera iritsi dira. Munduan zehar zientzialarien zerrenda bat egiten ari omen dira erreferendumaren alde.

Jendeak zerrendak egiteko duen grina ikusirik, ez legoke gaizki independentziaren aldekoek eta kontrakoek zerrenda bana egingo balute Katalunian. Botoa ez zen sekretua izango, baina bai argigarria. •

Loturen libertatea

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Datorren hilabeteak, urriak, egun seinalatu asko dizkin guretzat. Edo seinalatuak ditun lotzen gaituzten familia soketan behintzat. 6an, sei urte beteko ditun etxeko osaba hil zela. 12an, 62 egingo dizkin aitak. 17an, lau urte beteko ditun amaren aldeko aitona hil zela, eta 26an, 50era helduko dun ama. Egun seinalatu horiei guztiei, ordea, beste bat gehituko dien hik. Urriaren 4an alde egingo baitun putzuaren beste aldera, duela lau urte bezala, han egongo haiz urriko eta datozen hiruzpalau hilabeteetako egun seinalatuetan.

Baina urriaren aurretik, hire bizitzan beste egun seinalatu bat sortzeko boka-zioa izan dinagu kuadrillako neskek.

Gaurkoa izango dun egun hori, misterio handirik baliatu ez badugu ere, agurtzeko afaria eta parranda antolatu ditugulako. Misteriorik eza nire izaeraren parte dun, badakin kosta egiten zaidala ilusioa egiten didaten gauzak isilpean edukitzea. Eta uste dinat hik ere nahiago dunala, guztia sorpresan jasotzea baino, zenbait xehetasun kontrolpean izatea.

Hiretzat abenturaren hasiera izango dena, etxekoren batentzat atzerako kontaketa ere izango dun: amak, seguru asko, joan orduko jarriko din atzera kontua martxan; eta hasiko dun itzultzeko zenbat egun, aste, hilabete falta diren kontatzen. Nik ahal dunan ondoen pasatzea opa dinat, ahal dunan gehien gozatzea, egunerokotik ihes egiteko hartu nahi du-

nan distantziak itzuleran gauzak beste era batera ikusteko perspektiba ematea.

Bitartean, ea norekin partekatzen ditudan edozein taberna eta jatetxetako platerak. Ea norekin komentatzen ditudan BECeko finaleko eta hara arteko saioetako bertsoaldiak. Ea nork bidaltzen dizkidan Interneteko deskontu orrietan ikusitako eskaintzak. Behintzat, Whatsappez komunikatzeko aukera izango dinagu, GIFak bidaltzeko obsesio zorua sartzen zaidanerako ondo etorriko dun.

Badizkinagu egun batzuk hi joan aurretik eta itzultzen haizenean ere izango dinagu zertaz aritu. Bitartean, gozatu! Erri-me musika taldeko lagunek dioten bezala: «Libertatea delako zeri lotu hautatzea». •